

**UDALBATZARRAK 2011KO EKAINAREN 8an OSPATUTAKO EZ OHIKO
BILKURAREN AKTA**

2011ko ekainaren 8an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Roteta Elola Alkatearen Lehendakariitzean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Roteta Elola

ZINEGOTZIAK : Koldobika Jauregi Zinkunegi
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Juan Ignacio Umerez Urrezola
Ainara Zurutuza Ilundain
Jose M^a Aranzabe Urruzola

Ezin etorria adierazi dute: Aitor Eizmendi Garro

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. Aurreko bilkuretako akten onespena.
 - 2011ko apirilaren 26ko Udalbatzarraren ohiko bilkuraren akta.
 - 2011ko maiatzaren 17ko Udalbatzarraren ez-ohiko bilkuraren akta.
2. Alkatetza Ebazpenen berri ematea.

.../...

LEHENENGO PUNTOA
AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

- 2011ko apirilaren 26ko Udalbatzarraren ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

- 2011ko maiatzaren 17ko Udalbatzarraren ez-ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea akordatu da.

BIGARREN PUNTOA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

10/2011 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 28koa, Saletxe baserrian lizentziatik kanpo egindako obrak gelditzeko erabakia, ebazten duena.

11/2011 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 5koa, J.I. jaunak eginiko obra baimena eskaera onartzea, ebazten duena.

12/2011 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 12koa, Beleburupe guraso elkarteak eginiko eskaera onestu, hau da, San Juan Sua herriko plazan egiteko baimena ematea, ebazten duena.

13/2011 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 1ekoa, Beleburupe guraso elkarteak eginiko eskaera onestu, hau da, Kurtso bukaera festa dela eta bazkaria frontoian egiteko eta kultur etxea erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

14/2011 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 6koa, Beleburupe guraso elkarteak eginiko eskaera onestu, hau da, Kurtso bukaera festa dela eta bazkaria frontoian egiteko eta kultur etxea erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

15/2011 Alkatetza Ebazpena, ekainaren 7koa, Bateriaezintasun eta Jarduteko ezintasunei buruzko erregistroa eta Ondare ondasunei eta sozietateetan parte hartzeari buruzko erregistroa eratzea, ebazten duena.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 21.30etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso dut Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.